

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

252/2020 Foru Agindua, urriaren 20koa. Behin betiko onestea Lantziegoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren 5. aldaketa puntualaren espedientea

I. AURREKARIAK

Lehenengoa. Lantziegoko Udalak, 2020ko martxoaren 10eko osoko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea Lantziegoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren 5. aldaketa puntualari.

Erabaki hori ALHAOren 49. zenbakian argitaratu zen, 2020ko maiatzaren 4an, eta El Correo egunkarian 2020ko apirilaren 20an. Aldaketa osatzen zuen dokumentazioa hilabete egon zen jendaurrean, eta ezarritako epealdian ez zen alegaziorik aurkeztu.

Bigarrena. 2020ko uztailaren 2ko osoko bilkuran, Lantziegoko Udalak espedientea behin-behinean onestea erabaki zuen.

Hirugarrena. Aldaketa ingurumen ebaluazio estrategiko erraztuaren pean jarri da.

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren otsailaren 12ko 32/2020 Foru Aginduaren bidez, Lantziegoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren 5. aldaketa puntualaren ingurumen txosten estrategikoa formulatu zen, eta ingurumen baldintza batzuk ezarri ziren hirigintza agirian eransteak.

Laugarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, irailaren 30eko 4/2020 bilkuran, espedientearen aldeko txostena egitea erabaki zuen, lurralde antolamendura egokitzeari dagokionez, eta URA-Uraren Euskal Agentziak 2020ko irailaren 16an egindako aldeko txostena ere bidali zuen.

Bosgarrena. Lantziegoko Udalak, 2020ko urriaren 2an Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztutako idazki baten bidez, espedientea bidali zuen, behin betiko onesteko.

Seigarrena. Era berean, Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 14ko 155/1999 Foru Dekretuan agindutakoa betez, Arabako Hirigintza Batzordeak espediente horri buruzko txostena eman du urriaren 19ko 3/2020 bilkuran.

II. OINARRIAK

Lehenengoa. Espediente hau Lantziegoko Udalak sustatu du, eta xede dauka udalerriko 1 poligonoko 198-A lurzatiaren hirigintza kalifikazioa aldatzea, 1.000 m³-ko edukiera izango duen ur biltegi berria ezarri ahal izateko. Arabako Errioxako Urkidetzak egin beharrekoa da, eskualdeko hornidura zerbitzua kudeatzen duen erakundea denez gero.

Txosten honen xede den aldaketaren eraginpeko eremuak 3.261 m²-ko azalera dauka eta Lantziegoko herrigunearen ipar-ekialdean dago, lurzoru urbanizaezineko J24 zonan (J24. Basogintza interesa dela eta babestutako zonak), indarreko plangintzaren arabera. Proposatzen dena da lurzatiaren kalifikazioa aldatzea eta beste hau jartzea: Sistema orokorra – Zerbitzu azpiegituren zona publikoa, H1-03 gisa identifikatua.

Nekazaritza eta basozaintzako lurralde plan sektorialaren arabera, lursailak Basoa-Mendi mehatz gisa daude kategorizatuta.

Bigarrenena. Agiri teknikoak aldaketa horren beharra justifikatzen du, instalazio berria ezarri ahal izateko, zerbitzua kudeatzen duen Arabako Errioxako Ur Partzuergoaren argibideei jarraituz.

Kokaleku hori aukeratu da, altako saretik gertu dagoelako eta duen altitudeagatik. Horri esker, Lantziegoko hornikuntza zerbitzuaren presioa hobetu ahal izango da.

Hirugarrena. 2019ko azaroaren 25ean, espedientearen ingurumen ebaluazioa izapidetzean, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak txostena eman zuen, zeinean baloratu baitzuen eraginpeko baso lurzoruaren gaineko inpaktua, eta bateragarritzat jo zuen, nekazaritza arloko eragina ebaluatzeko protokoloa egin ondoren.

Laugarrena. Ebroko Konfederazio Hidrografikoak aldeko txostena egin zuen 2020ko ekainaren 6an, jabari publiko hidraulikoaren babesari, lasterren araubideari eta ur eskaera berriei dagokienez.

Bosgarrena. Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren otsailaren 12ko 32/2020 Foru Aginduaren bidez emandako ingurumen txosten estrategikoan (2020ko otsailaren 28ko ALHAO, 24. zk.) adierazitakoak hirigintza agirian jaso dira.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onestea Lantziegoko 2 poligonoko 198A lurzatia zerbitzu azpiegituren zona publikotzat kalifikatzeari buruzko HAPOaren 5. aldaketa puntualaren espedientea.

Bigarrenena. Aldaketa puntuala Arabako Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan sartzea.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da.

Laugarrena. Ebazpen horrek administrazio bidea amaitzen du, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabeteko epea izango da, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 20a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO